



# Pirinioetan posible delako

## MEMORIAREN LABURPENA

Orotara 50 bat lagun bildu dira bi egunez, Iratiko etxoletan (Larraine) egin diren “Pirinioetan posible delako” izeneko jardunaldietan, Udalbiltzak antolatuta. Jardunaldien helburua izan da Udalbiltzak sustatutako Pirinioetan Lan eta Bizi egitasmoaren berri ematea eta balantzea egitea egitasmoaren onuradunekin, eta kontrastea egitea eskualdeko eragileekin. Aurrera begirako urratsez ere eztabaida azalerratu da.

Luix Intxauspe Udalbiltzako Lehendakariak eman dio hasiera Jardunaldiei. Helburuak azaldu ditu eta etorritakoei ongi etorria eman die. Ondoren, Kattalin Sainte-Mariak, Pirinioetako eskualdeko diagnosis egin duenak, lanaren azalpena egin du eta agerian utzi du eremu horren desorekak eta nekeziak. Adibide gisa datu hauek bota ditu: 155 udalerrri dira eskualde horretan, hau da, Euskal Herriko udalerrien %22,6; baina EHko biztanleria osoaren %2,7 baino ez da hor bizi.

Sarrerako atala bukatzeko, Maite Iturrek, Udalbiltzako Batzorde Eragileko kideak, Pirinioetan Lan eta Bizi programaren balantze txostenaren erreposoa egin du.

### **Eztabaidarako txandak**

Hainbat onuradunen testigantzak eta esperientziak azaldu dira, besteak beste, Eskutik, Labore, Irati 4 Ibar, Belaun eta Lurzaindiarenak.

Ondoren Bi lan talde osatu dira, eta bi zatitan eraman zuten hausnarketa: programaren balantze konpartitua eta aurrera begirako giltzak.

Gehienek esan dute Udalbiltzaren laguntzak, kasu batzuetan, ezinbestekoak izan direla hasierako haien ekimenak aurrera egiteko, eta beste laguntzaren bat jaso izan dutenek, berriz, aipatu dute haien egitasmoa eusteko eta egonkortzeko balio izan dutela. Guztiek saretzearen beharra nabarmendu dute eta horretan Udalbiltzaren eginbeharra funtsezkoa izan daitekeela.

Aurrera begira kezka da nagusi egoera larria delako. Premiazko neurriak hartu behar dira politikoki elkarlana sustatzeko eta neurri sorta proposatu da.





## Mahai-ingurua

Bigarren egunean mahai-inguruan izan da ardatza. Parte hartzaileak:

Haizea Isasa Udalbiltzaren izenean eta Imanol Esnaola Gaindegiaren izenean. Gustavo Goiena (Zaraitzuko Juntako lehendakaria), Jojo Goheneix (Garaziko Mendi Elkargoko lehendakaria). Maite Goihenetxe (Biharko Lurraren Elkarte) eta Marian Cestau (Cederna). Moderatzaile lanak Pantxika Arambide (Euskal Irratiak).

## Ondorioak

Lankidetzaren programaren ideia ona eta berritzailea dela azpimarratu da, nahiz eta maila teknikoan hainbat puntu hobetzekoak izan. Elkar ezagutu behar dugu. Garapen ereduak zehaztu. Oso desberdinak ditugu. Denbora hartu behar dugu. Joera diruan zentratzeko baina proiektu interesgarriak egin daitezke dirurik gabe auzolanean. Udalbiltzaren funtzioez aritu dira hizlariak: saretea, esperientzien bankua, kohesioa.

Aurrera begira lehenetsunak mendi eremuak izan behar du. Mugaz bi aldeetan dauden lurraldeetan trukaketa garrantzitsua da. Muga ez dagoenean ere bai, baina beste mailakoa. Proiektu sozioekonomikoak oso garrantzitsuak dira betiere kultura bultzatzeko proiektuak ahaztu gabe. Udalbiltzak udalekin batera lurraldea modu orokorrean begiratuta proiektu orokor bat bultzatu beharko luke. Modu kolektiboan lan egiteko. Zer lortu nahi dugu? Galderari erantzunez bertatik erantzunak bilatuz eragile guztiekin batera. Hortik gero adostutako helburuarekin lerrotatuta egongo diren arlo desberdinetako proiektu txikiak garatzeko. Proiektu txikiak garatzeko diru laguntzen ordean mikro kredituak proposatu daitezke ekintzaileentzat. Proiektu txiki horiek oso garrantzitsuak dira, erakusten dutelako posible dela bertan lan eta bizitzea.

Pirinioetatik kanpo beharra duten beste zonaldeetan horrelakoak gauzatzea ondo ikusten da.



**Iratin, 2017ko urrian**